ENERGIA ETA EMISIOAK: HIRIAREN DESKARBONIZAZIOA PLANIFIKATZEKO

Posted on 16/10/2026 by Naider

zer da

HIRI-DESKARBONIZAZIORAKO LURRALDE-ADIMENEKO TRESNA

Energia eta Emisioak tresnak hiriaren balantze energetikoa bere auzoen eta eraikinen azterketarekin lotzen du. **Kontsumoak, emisioak eta eraikinen ezaugarriak** uztartzen ditu jarduteko lehentasunak identifikatzeko eta neurri desberdinen eragin energetikoa, ingurumenekoa eta ekonomikoa alderatzeko.





helburuak

KONTSUMO ETA EMISIO GUTXIAGO. ERABAKITZEKO GAITASUN HANDIAGOA

Balantze energetikoek udalerriaren bilakaera erakusten dute, baina inbertsioak irakurketa zehatzagoa eskatzen du: zein sektorek pilatzen duten kontsumoa, non dauden beharrak eta zein neurri-konbinaziok ekar dezakeen gehien. Tresnak **udal-helburua lurraldeko jarduerarekin** lotzen du, birgaitzea lehenesteko, aukerak ebaluatzeko eta deskarbonizazioaren jarraipena egiteko.

funtzionalitateak

JARRAIPENA, AGERTOKIAK ETA ERAIKINEN ARABERAKO IRAKURKETA

- **Jarraipen energetikoa**: kontsumoaren eta emisioen bilakaera sektoreen eta energia-iturrien arabera, urteen arteko konparazioa eta helburuen jarraipena.
- **Esku-hartze agertokiak**: birgaitze-, klimatizazio-, argiztapen-, ekipamendu-, energia berriztagarri- eta mugikortasun-neurrien simulazioa, kontsumoan, emisioetan eta inbertsioan duten eragin estimatuarekin.
- **Eraikinak, etxebizitza eta testuinguru soziala**: energia-, emisio- eta kategoria energetikoen mapak eraikinka, etxebizitzari, biztanleriari eta jarduera ekonomikoari buruzko datuekin lotuta.

onuradunak

UDALAK, AGENTZIAK ETA UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

Energia, ingurumen, etxebizitza eta hirigintza arloak, garapen-agentziak eta hainbat udalerriren trantsizio energetikoa koordinatzen duten erakundeak. Ezarpen bakoitza zein datu dauden eta zein eskalatan interpreta daitezkeen egiaztatuz hasten da.

aukerak

HIRIAREN KUDEAKETARAKO APLIKAZIOAK

1. Birgaitze-programa bat prestatzea: hasierako ahalegina non bildu hautatzea eta neurri desberdinen irismena alderatzea.

2. Deskarbonizazioaren bide-orria eguneratzea: serie historikoa berrikustea, erreferentzia bat finkatzea eta eraikinei, mugikortasunari eta zerbitzuei buruzko neurri-konbinazioak aztertzea.

3. Arloak koordinatzea eta erabakiak komunikatzea: energia, etxebizitza, ingurumen eta hirigintza arloen artean irakurketa bera partekatzea bilerak, txostenak eta emaitzen komunikazioa prestatzeko.

elkarrekintza

PRODUKTUAREN ERAKUSKETA

Bideoak benetako hiri-ingurune batean egindako esku-hartze energetikoko agertokien simulazioa erakusten du.

Irudiek eta bideoak Bilbao 2050 kasua erakusten dute, Bilboko Udalak bultzatua, PwC, NAIDER eta TEKNEIren lankidetza teknologikoarekin. Agertokiak ereduaren estimazioak dira.

Ezagutu Energia eta Emisioak produktua DataTool-en